

LITERATURA. Bere laugarren lana du hauxe, aurretik haur eta gazteei zuzenduriko hiru liburu kaleratu baititu

Lehorreko etorkinen drama jaso du Iñaki Frierak bere azken eleberrian


Barakaldoko idazleak 'Lehorreko paterak' liburua kaleratu du Susa argitaletxearekin

Estibalitz Ezkerra | BILBO

Lehorreko paterak liburuaren laugarren orrira jo, eta irakurleak eskaintza bitxi batekin egingo du topo: «Lehorreko pateretan itotzen direnei». Uda iristearekin batera, pateretan itsasartea zeharkatzen ahalegintzen diren etorkinen dramak komunikabide guztien arreta bereganatzen du. Baina etorri bezala joan egiten den gaia da hori: lehorrera iristen diren etorkinek ez dute albiste izatea merezi. Hain zuzen, ustezko paradisu zurira ailegatzen diren pertsona horiei zuzendu die Iñaki Frierak (Barakaldo, 1962) bere azken eleberria. Gorka Arrese Susako editoreak atzo azaldu bezala, *Lehorreko paterak* «ez da istorio biolento bat, baina, era berean, biolazio baten testigantza da».

Itsasoaz bestaldeko istorioa

«Sarritan hitz egiten da itsaso gainean dabilen pateraz, baina badago lehorreko patera bat ere. Etorkinak kostaldera iristen direnean, ez da beraien istorioa amaitzen, baizik eta beste berri bat hasten da. Nik itsasoaz harantzago doan istorio hori kontatu nahi nuen». Orain arte haur eta gazte literatura landu duen Frierarentzat (Ibaizabalekin hiru liburu kaleraturik dauzka), *Lehorreko paterak* aspalditik kezkatutik zuen gai bati oldartzeko modua izan da. Istorioko protagonista 17 urteko mutiko marokoar bat da. Jezabel itsa-



IÑIGO AZKONA

Frieraren nobela «biolazio baten testigantza» dela azaldu zuen atzo Susako Gorka Arresek.

sartea zeharkatzera joan zenetik, Ahmedek ez du Jezabelen berririk izan. Arreba bilatzeko asmoz, Ahmed penintsularantz abiatuko da, eta zurien lurraldea noizbait amesturikoarekin zerikusirik ez duela ohartuko da. Mutikoa, baina, ez da bakarik egongo, ondoan beti laguntzeko prest dagoen Maixabel edukiko baitu.

Gertuko kasurik ezagutzen ez zuela eta, nobelarako informazioa Internetetik atera zuen Frierak. Gaian aditua ez dela dio barakaldarrak, baina elebe-

IÑAKI FRIERA

Idazlea

«Sarritan hitz egiten da itsaso gainean dabilen pateraz, baina badago lehorreko patera bat ere»

rriak gauza asko ikasteko eta ezagutzeko aukera eman dio. «Liburuan hainbat kontu gordin agertzen dira, baina errealitatea ere horrelakoa da. Amaiera

bera gogorra izan daiteke, baina min eta inpotentziarekin batera borrokatzeko gogo agertzen da, eta horrek itxaropenari atetxo bat irekitzen dio».

Elkartasuna, sufrimendua, beldurra, ilusioa, maitasuna... Elementu ugari agertzen ditu *Lehorreko paterak*. Baina, ororen gainetik, irakurlea ideia batekin geratzea nahi du Frierak: «Aurrera begira, jendeak Ahmedekin, Jezabelekin edo izen gabeko etorkinekin zer gertatu den galdetzea gustatuko litzaidake».

Peter Carey idazle australiarak jaso du Booker sari ospetsua

Agentziak | LONDRES

True History of the Kelly Gang eleberriarekin irabazi du Australiako idazle Peter Careyk Booker sari entzutetsua. Ned Kelly antiheroi ezaguna da liburu sarituaren protagonista, banketxeak lapurtzen eta poliziak hiltzen jarduten duen Robin Hood berria.

«Harrituta nago, nire gorputza adrenalinaz gainezka dago», adierazi zuen Peter Carey idazleak sariaren berri izan zuenean, «kamioi batek azpian harrapatu eta bizitza berri bat hastea bezalakoa da hau», gaineratu zuen.

Bigarren irabazle

Egun New Yorken bizi da 58 urteko idazle australiarrentzat ez da Booker saria irabazten duen lehenengo aldia. Izan ere, 1988an sari bera eskuratu zuen *Oscar and Lucinda* eleberriagatik. Aurten, Ian McEwan idazle britainiarra zen, Careyz gainera, Booker saria jasotzeko faboritoetako bat.

Erresuma Batuko, Irlandako edota Commonwealth herrietako ingelesezko lanak dira sari honetako hautagaiak. Irabazleak 30.000 dolar jasotzen ditu saritzat, eta joan den asteazkenean jaso zuen dirutza hori Careyk Londresko Guildhall egoitzan.

Errezitaldiak, kontzertuak eta hitzaldiak bilduko ditu poesiaren bigarren asteak

Erredakzioa | BILBO

Poesia eta hiria lelopean, poesiaren bigarren astea jasoko du Bilbok hilaren 24tik 30a bitartean. Hitzaldiak, poesia, errezitaldiak, kontzertuak, haurrentzako tailerrak eta zenbait poetari eskainiriko omenaldiak bilduko dituzte jardunaldiek.

Hain zuzen, poesia eta hiria ardatzat izango dituen hitzaldiak zabalduko du poesia astea. Bidebarrieta liburutegiak

jasoko duen ekitaldian, Miguel Garcia Posada literatur kritikoa eta Iñaki Esteban poesiaren gaur egungo errealitateaz mintzatuko dira. Hurrengo egunean, Ramiro Fontek, Ana Rossettik, Alex Susanak, Pablo Garcia Casadok eta Harkaitz Canok errezitaldi bat eskainiko dute. Hortik aurrera, Luis Garcia Monterori omenaldi bat zuzenduko zaio, eta Areatzak errezitaldi maratoia hartuko du (Euskal Herriko 36 poetek parte hartuko

dute). Bestalde, astean zehar haurrentzako literatur tailerrak egongo dira, baita ipuin kontalariak entzuteko aukera ere. Bidebarrieta liburutegia Pott banda protagonista izango duen erakusketaren lekuko izango da. Bilboko hainbat dendatan, berriz, hiriari eskainiriko olerkiak egongo dira.

Hainbat kontzertu

Musikaren atalean, azpimarratzekoak dira Ubeda anaiek, Karlos Aranzegik, Jose Luis Otamendik eta Iñigo Aranbarrik elkarrekin aukeztuko duten *Ibiltarixanak*, Gariren kontzertua, edo Mikel Laboak eta Enrique Morentek eskainiko dutena.

LASARTE-ORIA AUKERAN dantza konpainia “SUTARGI”

2001 / URRIAK 20 / 20:00ETAN

SARRERA: 1.000 pzta.

MANUEL LEKUONA
KULTUR ETXEA

EUSKAL ANTZOKI SAREA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultur Departamentua / Lasarte-Oriako Udala

